



PICO: PAZIENTEENTZAKO ESKULIBURUA

Zer egiten du PICOk?

PICOk presio negatiboa egiten dio zauriari; horrela, gehiegizko exudatua ezabatzen du eta, azkarrago ixten laguntzeaz gain, babestu ere egiten du. Aspaldi erabiltzen da mota honetako tratamendua bai ospitaleetan, bai etxeetan.

Nola funtzionatzen du PICOk?

PICO xurgatze-ponpa txiki bat da, eta apositu itsasgarri xurgatzaile bati konektatuta dago. Apositua zauriaren gainean jartzen da eta, ondoren, aposituaren gainean, zerrenda itsasgarri garden batzuk, mugitzen ez dela ziurtatzeko. Ponpa konektatzean, airea xurgatu egiten da eta zauriaren gehiegizko exudatua apositura pasatzen da. Aposituak bakterioak zaurian sartzea saihesten du, eta, egindako presio negatiboari esker, odola hobeto igarotzen da zona horretan; hartara, zauria lehenago orbaintzen da.

Makinak pilekin funtzionatzen du; alda litezke, beharrezkoa balitz. Nolanahi ere, soilik aldatuko dira bateriaren adierazlea pizten bada.

Egunean zenbait orduz behar dut terapia hau?

Terapia honi ahalik eta etekin handiena ateratzeko, egun osoa jarrita edukitzea gomendatzen dugu, posible bada.

Noiz hobetuko zait zauria?

Pazientearen araberakoa da presio negatiboko terapiak zauri bat hobetzeko behar duen denbora. Horretan eragina dute, bada, egoera orokorrak, zauriaren motak eta tamainak, eta agindu den tratamenduak.

Kasu askotan, lehenengo apositu-aldaketan ikusten da zauriak hobera egin duela, baina, beste batzuetan, zenbait aste behar izaten dira.

Zauria erabat ixtea lortu arte erabil daiteke terapia, edo baliteke lehenago kentzea eta beste tratamendu edo apositu bat erabiltzea. Zauriak hobera egiten ez badu, artatzen zaituen osasun-profesionalak terapia etetea erabaki dezake.

Mingarria al da?

Makina konektatzen den lehenengo aldian, «tira egiten» edo «xurgatzen» duen sentrazioa arina izango duzu, baina ez du minik ematen. Minik baduzu, jakinaraz iezaiozu erizainari edo medikuari, zer egin behar duzun esan diezazuten.

Zer itxura du aposituak makina funtzionatzen ari denean?

Apositua azalera itsatsiko da makina konektatzean, zimurtuta eta tinko geratuko da, mahaspasa bat izango balitz bezala.



Zenbatean behin aldatu behar didate apositua?

Aposituak astean behin edo bitan aldatzen dira, baina, zenbait kasutan, maizago egin behar izaten da (zauriak asko exudatzen badu).

Zauriaren, haren tamainaren, motaren eta kokalekuaren arabera izango da. Zure medikuak edo erizainak esango dizu noiz aldatu behar den.

Apositua aldatzeak mina emango al dit?

Pertsona batzuek min arinen bat sentitzen dute aldatzean, zauria nolakoa den, baina ez da ohikoa izaten. Min arinik baduzu, jakinaraz iezaiozu aldaketa egiten ari den osasun-profesionalari. Aholkatu egingo zaitu eta, beharrezkoa balitz, sendagaiak emango dizkizu mina jasaten laguntzeko.

Mugitu al naiteke presio negatiboko terapiarekin nagoen bitartean?

PICO erabiltzen duten pazienteak arazorik gabe mugi daitezke, baina beti medikuak edo erizainak esandakoari kasu eginez. PICO diskretua da eta poltsikoan edo poltsan eraman daiteke.

Lo zaudenean...

Lo zaudenean, jar ezazu ponpa toki seguru batean, gauean nahi gabe eror ez dadin.

Dutxa eta higieena

Geruza itsasgarri gardenak ura jasaten du. Garbitu edo duxatu zaitezke apositua jarrita duzula; betiere, uretan utzi gabe, urpean sartu gabe eta ur-zurrustaren azpian zuzenean jarri gabe. Medikuari edo erizainari azaltzeko eska diezaiokezu:

- Deskonekta ezazu makina, botoi laranja zanpatuta.
- Jarraian, aska ezazu apositutik irteten den hoditik makinatik irteten den hodia.
- Jar ezazu makina toki seguru batean, eror ez dadin.
- Konekta itzazu berriro bi hodiak, eta konekta ezazu makina garbitzen amaitu bezain laster.

Nola dakit funtzionatzen ari dela?

PICO funtzionatzen ari denean, argi berde keinukari bat pizten da.

Aposituak pixka bat zimurtuta eta tinko egon behar du.

Zer gertatzen da alarmak jotzen badu?

PICOk bi alarma ditu: batak bateria gutxi dagoela jakinarazten digu eta, besteak, huts gutxi edo presio negatibo txikia dagoela.



Bateria gutxi

Makinak pilaren ikurraren gainean dagoen argi laranja keinukariaren bidez jakinaraziko digu. Une horretan, pilak aldatu beharra dago. Makina itzali, pilak aldatu eta makina berriro piztu beharko duzu. Pilak aldatu behar direnean, argi berdeak eta laranja aldi berean egingo dute keinuka.

Huts gutxi

Makinak huts nahikorik ez dagoela jakinaraziko digu argi laranja keinukari baten bidez. Gainera, ponpak dar-dar egingo du pixka bat hutsa berreskuratzen saiatzean. Aposituak exudatua xurgatzen jarraituko du, baina presio negatiboa ez da zauriaren geruzara iritsiko.

Baliteke aposituak ihes txiki bat izatea eta ondorioz hutsa galtzea; beraz, berrius ezazu aposituaren inguru guztia ertzetan zimur txikiren bat dagoen ikusteko, eta zanja ezazu arin-arin eskuarekin ertzetan, ziurtatzeko.

Itzal ezazu makina, eta piztu ezazu berriro. Minutu bat igaro ondoren argi laranja berriz hasten bada keinuka, ihesa konpondu ez den seinale da. Berrius ezazu berriro aposituaren ingurua, ihesik dagoen ikusteko. Minutu bat igaro ondoren argi berdeak keinuka jarraitzen badu, ihesa konpondu den seinale da.

Jar zaitez harremanetan medikuarekin edo erizainarekin ihesa adierazten duen argi laranjaekin arazoak badituzu behin eta berriro.

Noiz aldatu behar da ponpa?

Ponpa 7 egun ondoren gelditzeko programatuta dago. Epe hori igaro ondoren, bada, gelditu egingo da ponpa, argi guztiak itzaliko dira eta ez du berriro funtzionatuko, pilak aldatzen badizkiozu ere.

Une horretan, ez zaio inolako presio negatiborik aplikatuko zauriari; beraz, osasun-zentrora joan beharko duzu eta medikuak edo erizainak produktua kenduko dizu; gainera, beste sistema bat aplikatu behar dizun baloratuko du.

Jar zaitez harremanetan berehala erizainarekin edo medikuarekin, baldin eta:

- apositua odolez azkar betetzen dela ikusten baduzu.
- zauriaren ertza gorrituta edo minberatuta badago.
- apositua askatuta edo kolokan dagoela ematen badu.
- zauriari usaina badario.
- mina baduzu.
- alarma ez bada gelditzen.

(Testuak Smith & Nephew-k laga ditu)